



 **15 URTE**
àcceder
ijito komunitate gi-
zarteratzearen alde





Acceder: Ijito elkartearen gizarteratzeko aukera historikoa



Administrazio eta GKE Gobernu Kanpoko Erakundearen programa sozialak ongizate ikuspuntu zentzua zuten, eta Europako baliabideen egitura funtsek ez zien mesede handirik eskaintzen gizarteko talde baztertuenei.

Orduan Espainiako Gobernuak eta Europako Batzordeak, GKE talde txiki bati, gure kudeaketa eta emaitzak lortzeko genituen gaitusunak frogatzeko aukera eskaini zizkiguten. Biztanleria-multzo hauen hurbiltasuna eta beraien behar espezifikoak ezagutza genuen: beste batzuen artean, ijitoen komunitatea, etorkinak, itxialdian daudenak, ezinduenak...

2.000. urtean, Ijitoen Idazkaritza Fundazioak ijito herriaren gizarteratze prozesuan bultzada indartsua emateko aukera historikoa aprobetxatu zuen.

Demokraziak eta ongizate-estatuak aurrerapen handiak erraztu zituzten hezkuntza unibertsal edo etxebizitza sozialen alorrean, baina oinarritzko palanka sustatu behar zen, lan ordainduarena alegia, gizarte normalizazioaren gakoa.

Horrela sortzen da *Europako Gizarte Funtseko 2000/2006 Diskriminazioaren aurkako eskualde anitzeko* programa eragilea, erakunde publikoak sustatzaileak izanik eta lehenbiziz Europan, 5 gizarte entitate: Caritas, Espainiako Gurutze Gorria, ONCE Fundazioa, Luis Vives Fundazioa, eta Ijitoen Idazkaritza Fundazioa.




Beharrak asko ziren, desoreka handiak genero gaitetan, eta itxaropen gutxirekin, gutxitan emaitzak lortutako biztanle taldeekin lan egiteko asmoa bai zegoen. Beren artean, "roma" ijito biztanleria, mendeetan diskriminatua eta ongizate parametro arruntetatik oso urrundua.

Horrela sortzen da Programa Eragilea, ijito herriari zuzenduriko ekintza espezifikoak Ijitoen Idazkaritza Fundazioaren esku ipiniz. **Acceder** programa izendatuz.

Programa hau 7 urteko ikuspegiak sortzen da, ezohizkoa garai hartan. Hasieratik arreta enpleguan ipiniz, gizarteratzeko giltza nagusitzat hartuz.

Denborarekin, bigarren denboraldian (2007/2013), ekintza esparrua zabaltzen nahian beste giltza oinarritzko bat txertatzen da, hezkuntza, gizarteratzea eta herritartasun osorantz. **Promociona** programarekin.



Caritas



Cruz Roja

LUIS VIVES
CENTRO DE ESTUDIOS SOCIALES
1951 - 1952 - 1953 - 1954



Fundación ONCE





Eragin eta emaitzezko
programa: 22.000 pertsona
baino gehiagok
lanpostua lortu dute
15 urte hauetan



Ijito herriak Espainian egituraz desabantaila handia jasaten zuen lan munduratzean, jarduera aragabebetara aritzen zirelarik gehienak, salmenta ibiltariak bezala, eta atzeraldi indartsu batetan zeuden lanbide tradizionaletan edo guztiz desagertzera zihoazen jardueretan.

Langabezi tasa handia murriztea, ijito herrian soldatapeko lana sustatzea, eta emakume ijitoa jarduera ekonomiko arautuan txertatzea. *Acceder* programaren erronka handi bezala planteatu ziren.

Acceder programa aurrera egiteko beharraren uste osoz sortu zen, emaitza nabariek, ijito herria ordaindutako lan enpleguan txertatzean, eta bereziki emakume eta gazteen behar bereziei arreta ipiniz.

Programa eraldatzaile bezala planteatu zen hasieratik, eta bertan parte hartzen zuten pertsonen bizi-baldintzetan inpaktoa lor zezan, eta prozesu osoan zehar lehen mailako enprekin kontaktzea aliatu bezala.

Enplegarritasuna hobetzen

Acceder lan bitartekaritzarako programa bat da, ijito herriaren benetako lan txertatzea, eta pertsonen gizarteratze osorako atea izatea helburu duena.

Acceder-en bitartez lan plangintza pertsonala garatzen da, familianm eta testuinguruan laguntzen, baita lan merkatuan ere, lan aukerak igartzen eta enprekin aliantzak eginez.

Dinarrizko lanbide prestakuntzaren sustapena, programarentzako funtsezko tresna bat da. Honela ijitoak lan-merkatuan baldintza hobegotan sartzea errazten da, biztanle guztien aukerak berdintasunean eraginez.



Arrakastaren gakoak

Hauek izan dira 2000. urtetik programaren gakoak:

- > Lan txertaketarako bakarko ibilbideak: Pertsona eta ingurune bakoitzari dagozkion erantzunak.
- > Espezializazioaren garapena aukera-berdintasunaren giltza gisa.
- > Lan merkatuaren esku-hartzea, enprekin bitartekari gisa eskaintza eta eskariaren hurbilpenerako.
- > Emaitzetara bideratzea, etengabeko ebaluazioa eta berrikuntza.
- > Ikuspegi integratua.
- > Lan-merkatura inguratzeko emakume eta ijito gazteen aktibazio eta mobilizazioa.
- > Mentalitate aldaketa bat sustatzea: Lan bat izatearen balioa.
- > Gizarte sentsibilizazioa eta eragina politikan
- > Ijito herriarenganako planteamendu zehatzak, baina baita elkarte berean bereziki oztopo gehien dituztenentzat: emakume ijitoak, romaijitoak (Europar ekialdetik datoztenak).

Gizarteratze enpresak

Acceder-ek babestutako enpleguak, ijito herriko jende baztertuenari lan mundura sartzeko aukera bat eskaintzen die, aldi baterako eta egokitutako lan-giro batean, baldintza determinatzaileak eta oztopo pertsonal eta sozialak gaindituz.

- > **Nabut** – garbiketa, garbitegia y merkataritza.
- > **Vedelar** – Lorezaintza eta basolanak.
- > **Ecotur** – Kongresuetako zerbitzu osagarriak (laguntzaileak).
- > **Uzipen** – Konponketak, mantenimendua eta garbiketak.



Ekimen berriak

> **Lanean ikasiz.** Espainiako Gurutze Gorriarekin hedatutako ekimen bat da. Gazteenekin (18tik 30 urte bitartekoak) erabateko prestakuntza egitarau teoriko praktiko bat hilabete batzuetan zehar benetako lan inguruneetan garatzen da. Enpresa barruan, lan bat baino gehiago ikasteko aukera eskintzen du, aldakortasuna bermatuz lan merkatuan. Enpresa- aliantza erabakigarria da, trebakuntza prozesu osoan inplikazio indartsu batekin.

> **Merka ekimena.** Ekimen honen helburua Salmenta Ibiltaria kalitatezko enplegua eta iraunkorra bihurtzea da, ijito saltzaileen profesionalizazioaren bidez, eta merkatuen modernizazioaz..

Bizitzak eraldatzen dituen Emaitzak

Acceder programaren arrakastak, kuantitatiboki oso zenbaki esanguratsuak ditu: 22.000 lagun lan mundura heldu dira (57.916 lan kontratu sinatuz), gizonezko eta emakumeen arteko oreka garbi batekin, azken hauek erabiltzaileen %53 direlarik.

Urte hauetan 2.800 prestakuntza ikastaro eman dira, eta 19.694 enprekin lan egin delarik eta 82.402 erabiltzailek parte hartu dute programan (32.788 erabiltzailek 30 urte baino dituztelarik).



APRENDER TRABAJANDO



ACCEDER 2000-2014ko EMAITZAK

SEXU	GIZON	EMAKUME	GUZTIRA
JASOTAKO PERTSONAK	43.797	38.605	82.402
PRESTATUTAKO PERTSONAK	15.575	11.484	27.059
TXERTATUTAKO PERTSONAK	11.923	10.574	22.497

ADINA	25etik BEHERAKO GAZTEAK	25-54	55etik GORAKOAK	GUZTIRA
JASOTAKO PERTSONAK	14.832	64.274	3.296	82.402
PRESTATUTAKO PERTSONAK	4.870	21.107	1.082	27.059
TXERTATUTAKO PERTSONAK	1.800	20.022	675	22.497

ACCEDER 2000-2014ko EMAITZAK



"2004ko zabalkuntza geroztik, Ijito komunitatea Europar Batasuneko gutxiengo handiena da. Egitura Funtseekin Finantziatutako Proiektu hobereenetarikoak da Acceder programa, arrakasta handia suposatzen bait du ijito herriaren lan munduratzean. Garrantzitsua da praktika zintzoekin hasi eta ondorio positibo berdinak lortzea beste estatu kide batzuetan."



Vladimir Spidla-ren adierazpenak, Europako Enplegu Komisarioa, Europako Gizarte Funtsearen 50. urteurrenaren ospakizunean Espainian 2007ko ekainean.



DIANA CERREDUELA

Acceder programako parte-hartzailea. Valladolid

"Pertsona arrunta naiz, oso arrunta. Goizean altxatzen naizenean, amari laguntzen diot etxeko lanetan, kultura noa...Eta nire lanera joaten naiz. Ez ditut nire ohiturak utzi. Nire aita ijito tipikoa da. Hasieran zaila egiten zitzaion. Nire alaba lanean, zer pentsatuko du jendeak. Baina aitak zoriontsu ikusten nau, gustura, ijito bezala erretratatu eta batez ere pertsona bezala. Eta hori uste dut aita bati gustatzen zaiola. Uste dut nire aita pozik eta harro dagoela".



RAMÓN GIMÉNEZ

Acceder programako parte-hartzailea. Valencia

"Ijitoa ausarta da. Bizirik atera dena. Ijitoak gehiago izan nahi dugu, gehiagora iritsi. Daukazuna hor ipini behar duzu. Gizon, emakume ijito bezala. Frogatu behar duzu. Eta puntu guztietan gehiago erakutsiz. Konfiantzazkoa... zutaz benetan fida daitezkeela. Esfortzuzkoa... Balio duzula erakutsi behar duzu. Ijitoa ez dela alferra. Balio duzula".



SANTA CERREDUELA

Acceder programako parte-hartzailea. Valladolid

"Ijitoen Idazkaritza Fundazioari esker ni atera naiz... nire ikasketak lortu ditut. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortu dut. Prestakuntza desberdinetako tituluak ditut, eta lan egin dut. Nire bizitzako esperientzia onena C&A ko lan eskarmen-tua izan da. Jendeak maitasunez hartu nau... Erronka handia izan da, baina lortu dut eta itxaropen handiz eta lanerako gogoz, batez ere".



Ikusi mikro - bideo hauek QR kodea eskaneatzen, mugikor batetik.

Acceder-en 15 urte" bideo osoa ikusteko honako QR kodea aztertu. →





5 urtez Promociona, laguntza eta hezkuntza-orientazioa, aldaketa sozialaren muina ukitzen duen programa

Duela 30 urte inguru Espainian ijito haurrak eskolaratzen hasi zirela. Nahiz eta lehen hezkuntzan normalizazioa ia osoa den, oraindik defizit larria dago Derrigorrezko bigarren hezkuntzan eta ondorengoetan.

Orain, 16 eta 24 urte bitarteko ijito ikasleen %64ak derrigorrezko ikasketak ez dituzte amaitzen, orokorki adin horretako % 13ren aurrean. Nesken kasuan oraindik egoera okerragoa da, mutilen bizitza eskolarra baino txikiago izanik.

Egoera honek, botere publikoaren utzikeria islatzen du eta diskriminazioa oinarritzko eskubidean, gazte hauen bizitza baldintzatzen du, eta bizi izan duten eta oraindik ijito famili askok bizi duten pobrezia eta bazterketa erroproduzituko du.

Hezkuntza, gizarteratze- zeko ezinbestekoa

Lehenengo zazpi urteetan Diskriminazioaren Aurkako Programa, Lanbide heziketarako eta enplegurako ekintzetan arreta jartzen sailatu zen, bigarren denboraldian (2007/2013) argi ta garbi ikusi zen arreta lan aurreko faseetan ere kokatu behar zela.

Honek suposatzen zuen kontzeptuaren handitze bat eta lanaren garapena ibilbide pertsonalizatuaren bitartez, azken finean, hezkuntzaren txertaketa hasieran enpleguan zentratuta zegoen programa batean.



Promociona
Por el éxito escolar
de la comunidad gitana

Planteamendu honekin, erantzun konplexu eta eraginkorrak eskeini nahi ziren, errealitara geroz eta konplexuagoa eta multidimentsionalagoa bai da. Azken finean, atentzioa arazo nagusian ipini nahi zen, geroz eta gazte ijito gehiagok Bigarren Hezkuntzako ikasketak titulua besapean dutelarik amaitzea.

“Promociona” programa

“Promociona”: “ijito- gazteen eskola-arrakasta eta ikasketen jarraikotasunarengatik”. 2009tik Ijitoen Idazkaritza Fundazioak hezkuntza mailan garatu dituen ekintzen marka da..

Hezkuntza sostengo eta orientazio programa da, hezkuntza prozesuan parte hartzen duten eragile guztiei zuzenduta- ijito-ikasle eta familiak, hezkuntza zentroak eta beste giza eta heziketa-eragileak- 3 ardatz nagusietan oinarrituta:

- > Heziketa-orientazioa
- > “Promociona” ikasgelak (kalitatezko laguntza eta errefortzu espazioak)
- > Laguntza, sentsibilitatea lantzeko kanpaina eta beste ekintzekin.

"PROMOCIONA" 2014-2015-EKO EMAITZAK

DBH-KO TITULUA LORTZEN DUTEN
"PROMOCIONA"-KO PARTE HARTZAILEAK

GOI MAILAKO IKASKETEKIN JARRAITZEN
DUTEN PARTE HARTZAILEAK



MUTILEN
%75,0A



NESKEN
%89,5A



MUTILEN
%87,8A



NESKEN
%75,3A



OSOTARA %82,1A



OSOTARA %81,1A

2014-2015 "PROMOCIONA" KURTSOA – ESTATU MAILAKO KANTITATEA



1.067 FAMILIEKIN
LAN EGIN DA



1.276 IKASLE



373 HEZKUNTZA
ZENTROAK

Eskola-arrakastari begira

"Promociona" eredu interkultural batetik abiatzen da eta erabilgarri dauden zerbitzuen erabilerara sustatzen du biztanleria osorako. Bere metodologiak familien inplikazio eta pentsaera aldaketa bilatzen du, ijito ikasleria bere egoera akademikoa hobetzea, ikasketak bertan behera uzten dituzten ikasleen kopurua txikiagotzea eta, azken finean, eskola-arrakastaren zifra handiagoak lortzea.

Etorkizun oparoko emaitzak

2014/2015eko ikasturtean "Promociona" programan parte hartu zuten DBH-ko 4. mailako ikasleen % 77,5ak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzea lortu zuen, eta ikasketekin jarraitu zuen, aurreko urteekiko antzeko emaitzekin parekatuz. Datu hauek Espainiako 1.000 familia eta ikasleekin, eta 300 hezkuntza-zentroak baino gehiagorekin egin den urteko lanaren batez bestekoa erakusten dute.



SONIA CORTÉS

Hezkuntza orientatzailea IIF- Malaga

"Niretzat ijito- komunitateak aurre egin behar duen erronka handiena heziketa da. Lan egiten dugun ikasleengandik gehien hunkitzen nauena da beren burua DBH-ko 4. maila bukatzeko gai ikusten ez dutenak, ezta goi-mailako ikasketekin jarraitzeko ere. Haiengandik oso urrun dagoen zerbait da. Horregatik, geroz eta gehiago, erreferente positiboak sortu behar ditugu, haien buruak isladatuta ikusi ahal izateko eta beren ikasketak buka ditzaketela sinisteko".

FERNANDO MORIÓN

Heziketa departamentua IIF

"Ijito- gazteak transizio egoera bizitzen ari dira. Ijitoen hezkuntza-egoera gutxinaka hobetzen doa, hala ere, 10 ijito-ikasleetatik 6k ez dute derrigorrezko ikasketarik bukatzen, horrek lan munduan sartzeko eta motibatzeko dakarren zailtasunarekin. IIF-k urteak daramatza egoera hau paliatu nahian hezkuntza-orientazioan oinarritzen den programa baten bitartez".





PENSAMIENTO Y CULTURA **Gitanos**

Nº 63
Diciembre 2012
Revista Trimestral
de la Fundación
Secretaría Gitano
3,75 Euros



Perfiles:

Engracia Hidalgo Tena,
Secretaría de Estado
de Empleo

Acceder:

Programa *Acceder*.
Balance de 12 años

Dossier:

Gitanos y Empleo, nº 4
Población gitana, empleo
e inclusión social.
Principales resultados y
conclusiones del Estudio
comparado 2011

*Ijito- komunitatea
aldaketa ugari
izaten ari da,
nahiz eta gizarteak ez
hauteman.*

Diskriminazioaren Kontrako Programak sortu zenetik, ijitoen aukera-berdintasunak sustatzeko beharra ikusi zuen. Gizarteak orokorrean ijitoenganako duen ikuspuntu ezkorra eta arrazismoaren jarrerekin amaitzeko lan sakona martxan jarri zuen.

Gizarteak ijitoen kulturaren inguruan duen ikuspegiak, bai lan munduan, baita ere hezkuntzan, etxebizitzan, eta abar, ondorio negatiboak eragiten ditu. Hori dela eta, programaren oinarritzko puntua gizartea eta giza-eragileen sentsibilizazioa sustatzea eta diskriminazioa pairatu dutenak laguntzea izan da, baita epaiketetan beharrezkoa duten laguntza ematea ere.

Honetaz gain, aurrera eramán diren programek ijitoei buruzko ikuspuntua aldatzen lagundu dute, XXI. mendeko ijitoen benetazko egoera munduari ezagutzaraziz, lanbide ezberdinetan kokatuz eta hezkuntzan familien inplikazioa lortuz.

Gizarte sentsibilizazioaz gain, gaur egungo sistemak, egiturak eta politikak azpimarratzea bilatzen da ijitoen gizarteratzea eta hiritar moduan aritzea oztopatzen duten zergatiak deuseztatzen.

Hau aurrera eramateko ijitoei buruzko ezagutza handitzeko ikerketa eta material ezberdinak prestatu izan dira: web gunea, "Gitanos" aldizkaria, boletín elektronikoak, merchandising... hala nola, mintegiak, elkarteratzeak eta bilera ezberdinak egín dira.



Sentsibilizazio kanpainak

2004an hiru esparruetan oinarritutako kanpainak abian jarri ziren: giza-irudia, lan mundua eta hezkuntzan:

- > "Ezagutu epaitu baino lehen"
- > "Zure aurreiritziak besteen ahotsak dira"
- > "Lanak berdintzen gaitu"
- > "Handitan izan nahi dut..."
- > "Ijitoak ikasketekin, ijitoak etorkizunarekin"
- > "Zure ametsetan murgildu"



Ikerketak

Egin diren ikerketa garrantzitsuenak hauek izan dira:

- > El empleo y la población gitana (EPAre datuak kontuan harturik) y Observatorios de Empleo (estatu eta autonomía mailan)
- > Estudios sobre normalización educativa del alumnado gitano (Lehen eta bigarren hezkuntzan)
- > Mapa sobre Vivienda y comunidad gitana en España (2007)
- > "Discriminación y comunidad gitana" informeak (urtero, 2005etik)



European elkarlanean enfoke eta estrategia berriekin



Europar Batasunean 6 milioi baino ijito gehiago bizi dira. Herrialde batzuetan pobrezia eta muturreko bazterketa egoeran daude. Duela hamarkada bat migrazio mugimendu garrantzitsua ematen ari da ekialdetik mendebaldera.

Europar instituzioetatik Marko Politikoa eta inbertsioak bultzatzeko beharra ikuskatu dute, ijitoen bizi-egoera hobetzeko eta gizarte kohezio handiago lortzeko.

Marko hau Espainian "Estrategia Nacional para la inclusión de la población gitana 2012-2020" an zehazten da. IIF-k azkeneko urteetan garatutako ekintzak ezinbestekoak izaten ari dira Estrategia Nazionaleko helburuak lortzeko bidean.

"Acceder" programak European du ardatza: bai bere sorreran eta finantziazio iturrian, Fondo Social Europeo, bai bere kanpo- proiektzioan, eredu hau Bosnia, Errumania edo Italiako Hegoaldera zabalduz.

Programa honek goraipen asko izan ditu foro eta instituzio ezberdinetan (Nazioarteko Batasun Erakundeak, Europako Batzorde eta Parlamentua, Europako Konsteilua, Europako Gizarte eta Ekonomia Batzordea, Munduko Bankua...) Europako diru - funtsaren kudeaketa berri eta eraginkorragatik.

Azken urte hauetan zehar, ikerketa asko egin dira programaren inguruan: eragileentzako aurkezpenak, argitalpenak, hala nola esperientzien elkartrukaketaren aholkularitza eta sustapena.

EUroma elkarlana

IIF eta Espainiako Lan Ministerioak sustatutakoa, Egitura- Funtsen erabilera Europar Batasun osoan ijitoen komunitatearen gizarteratzerazuzenduta dago.

Europako 12 Estatu kideek parte hatzen dutemilioika ijitoen bizitzan eragina dutelarik-. Europako Batzorde eta Parlamentuak gobernu ezberdinak animatzen ditu inizatiba hau jarraitzerazera.



Gizarte inbertsio errentagarria eta eragina duena



Azken 15 urte hauetan, "Acceder" programak emaitza nabarmenak lortu ditu Espainiako hainbat zonaldeetan, ijitoentzat oso onuragarria izan dena.

"El empleo de las personas vulnerables" (2013) ikerketak adierazten zuen moduan, "Programa de Lucha contra la Discriminación" probetxuzko programa da, euro baten inbertsioarekin 1,39 euroko irabaziak egon baidira (zergetatik, gizarte kotizazioetatik...).

Gainera, programa honi esker gizarte osoak irabazten du, programa honek ez baidie faborerik egiten onuradunei bakarrik (formakuntza, lanbide edo hezkuntza laguntzarekin), baizik eta politika publiko eta beste erakunde batzuentzat ere onuragarria da. Beraz, giza-kohesioan ere eragin baikorra du.

Inpaktu kualitatiboak eta ikaskuntzak

"Acceder" (22.497 lanpostu) edo "Promociona" (%82ak DBH titulua eskuratzen du) programen inpaktu kuantitatiboez gain beste inpaktu kualitatibo garrantzitsuak badira, hala nola:

- > Ijito-familia askoren mentalitate aldaketan, bai maila pertsonalean eta baita taldean ere, lanaren eta hezkuntzaren inguruan.
- > Administrazio publikoen, enpresen eta gizarte eragileen aldaketan ijito-komunitatearekiko, beraien itxaropen, aurreiritzi eta gizarte errealitateari begira.


Programen ikaskuntzaren inguruan, beste batzuen artean, hauek azpimarra ditzakegu:

- > Metodologia partekatuarekin lan egin da bulego guztietan, beste esparru edo politika orokorretara transferentzia eginik.
- > Zerbitzu espezifikoak eskaintzen dira, ijito-komunitateari egokitutakoak, baina ez bereiztuak. Aldi berean, ijito-emakumeei egokitutakoak, genero berezitasunak kontututa izanda.



- > Giza- baliabide interkultural, motibagarri, konprometitu eta profesionalekin lan egiten da, entitate profesional, berri eta eraginkor baten barnean.
- > Denboraldi luzeko planifikazioak (7 urte edo gehiagoko epeak) mugimendu askatasun handia izateko aukera eman du.
- > Ikuspegi intrgrala eta integratua hartu da, informatika tresnetan oinarritutakoa, tokiko, autonomia, estatu eta Europa mailako esku hartzeak aurrera eramaten.
- > Orientazioa helburu eta emaitzetara (neurgarriak, gehiengo biztanleriarekin konparagarria...)

FINANTZIAKETA • 2014





IIF: hainbat hamarkadako ibilbidea eta erronka handiko etorkizuna.

Ijitoen Idazkaritza Fundazioa 60. hamarkadan sortu zen. Bere helburua ijito- komunitatearekin lan egitea izan zen, hauek mende askotan zehar sufritu duten diskriminazioari aurre egiteko.

Erakunde bezala 1982an sortu zen, baina Fundazio izatera 2001ean pasa zen. Urte guzti hauetan zehar, IIF entitate aitzindari, profesional, argia, eraginkor...bezala finkatu da. Antolatze modua interkulturala da, bere plantila ijitoz (%25) eta ez ijitoz osatuta dagoelarik. Azpimarratzekoa da bere programak pertsona guztientzat irekita daudela, ijito edo ez ijitoa izanda, antzeko baliabide sozioekonomikoekin.

Momentu hauetan IIF-k 56 bulego ditu, 76 herrialdeetan lan egiten du, 14 autonomia erkidego ezberdinetakoak. Aldi berean Europa esparruko hainbat proiektu eta ekimenetan parte hartzen du.

Etorkizunerako erronkak

Nahiz eta azken 15 urteetako aurrerapenak oso nabarmenak izan, oraindik erronka nahiko geratzen dira:

- Lan kontratazioak mantendu eta enpleguaren kalitatea hobetu ijitoen kasuan, langabezari aurre eginez.
- Hasierako prestakuntza indartu ijito- gazteen kopuru handiago batek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortu dezan.
- Pobrezia, diskriminazioari eta gizarte bazterketari aurre egin. Ijitoen normalizazio egoera lortuz.
- *Estrategia Nacional de Inclusión de la Población Gitana 2012-2020* - an adostutako helburuak bete.
- Mundu mailan ekintzak zabaldu elkarlana sarean sakonduz eta baita ere eragin politikoa EURoma ekimenaren bidez.
- Eraginkorragoa izan, inpaktu handiagoa lortuz.

Aukera ezberdinen artean garrantzitsuena berehala martxan jarriko den "Programa Operativo de Inclusión Social y de la Economía Social(POISES)" da "Fondos Estructurales y de Inversión Europeos 2014/2020" finantziazioari esker.



IJITOEK IDAZKARITZA FUNDATZIOA-REN BULEGOAK



MUGARRI BATZUK

2000

- > "Programa Operativo de Lucha contra la Discriminación (2000-2006)" 1. denboraldiaren hasiera. "Acceder" programa aurrera eraman 30 herrietan.

2001

- > "El Plan Nacional de Acción para el Empleo de España"-k "Acceder" programa Buena Práctica eredu bezala aukeratzen du.

2003

- > "Observatorio de Empleo y Comunidad gitana"-ren argitalpena.
- > "Acceder" en zabalkuntza 12 hiri gehiagotara.

2004

- > "Acceder" programa "best" bezala aukeratua Dubaiko Sari Internazionalen bizi baldintza hobetzeko egindako lanarengatik.
- > "En el empleo todos somos iguales" mintegia Sevillan.
- > "Conócelos antes de juzgarlos" sentsibilizazio kanpaina.

2005

- > "Discriminación y comunidad gitana" lehen urteroko txostena.
- > "Tus prejuicios son las voces de otros" kanpaina.

2006

- > "Población gitana y empleo" ikerketa.
- > "Acceder" programa hautatuta "Plan Nacional de Inclusión Social 2006-2008"-an praktika on bezala, Cáritas, Gurutze Gorria eta ONCE fundazioarekin batera.

2007

- > EURoma-ren sorrera.

- > LCD Programa Eraginkorraren 2. denboraldia (2007-2013).
- > "Acceder" programa hautatua "Planes de Inclusión Social Europeos"-en eskutik praktika on bezala, Cáritas, Gurutze Gorria eta ONCE fundazioarekin batera.
- > "El empleo nos hace iguales" kanpaina.
- > "Acceder" 2000-2006 programaren emaitzen infor-meak (estatu eta eskualde mailan)

2008

- > "Acceder"-en transferentzia Errumaniara.
- > Lehen estatu-mailako mintegia Erroma/Ekialdeko Ijitoen artean.

2009

- > "Promociona" hezkuntza programaren sorrera.
- > "De mayor quiero ser..." heziketa kanpaina.

2011

- > "Población gitana y empleo" 2. ikerketa.

2012

- > "Acceder"- en zabalkuntza 6 hiri gehiagotara.
- > "Gitanos con estudios, gitanos con futuro" kanpaina.

2013

- > "Aprender trabajando" programaren hasiera
- > 'El empleo de las personas vulnerables: una inversión social rentable' ikerketa Cáritas, Gurutze Gorria, ONCE eta IIF-ren artean.
- > "Asómame a tus sueños" hezkuntza kanpaina.
- > EURoma+-en sorrera.

2014

- > "Merca" martxan jartzen da frogia moduan Andaluziako bi hirietan.
- > "Acceder" programaren transferentzia Italiara.



> 15 URTE > acceder

15 urte Europako Gizarte-Funtsak batera lan egiten, Espainian eta Europan. Ijito Komunitate gizarteratze eta sustapenaren alde.

FUNDACIÓ SECRETARIADO GITANO

Seu social: c/ Ahijones, s/n · 28018 Madrid

Tel. 91 4220960 · fsg@gitanos.org · www.gitanos.org

